

Maite dut Felix, anaia nagusia.

Eta hark ere maite nau ni.

Adiskiderik onenak gara.

Borroka libre a guk asmatua da.

Bata bestearen GOGOA irakurtzeko gai gara,  
eta hizkera super sekretu bat dugu. Adibidez, zerbait  
primerakoa denean, "jaukal total" dela esaten dugu.

Bide batez, Felix jaukal totala da.

Baiki.

Ni eta Felix.

DENA

egiten dugu

elkar hartuta.



# DINO SMASH MONSTER kamioi-gidariak gara!



# DOOM-EKO LAVA CAVES

## esploratzen ditugu!



Artea da gure adierazteko modua!  
Etorkizuneko artistak gara!



Felix da inoizko anaia nagusirik onenena.  
Talde bikaina gara.  
EDOZER egiteko gai gara elkarrekin.  
MUNDUAREN jabe izateko gai gara elkarrekin.  
Pertsona bakarra gara bi gorputzetan.



Nano...

Ai!



Nanoak



EZ  
sartu.



Amak esaten du NIRE KABUZ jolasten ikasi behar dudala.  
Amak esaten du batzuetan pertsonak “espazioa behar dutela”,  
eta “denborari denbora eman” behar zaiola. Hamasei arte  
bakarrik dakit kontatzen.  
Nahikoa denbora iruditzen zait niri.



Jolasteko prest  
behar du honez gero.



Felix?  
Sar  
naiteke?

KAX  
KAX

EZ.

Irakurri. Kartela.  
Hau NIRE zuhaitz-etxea da.  
Utziozu ni imitatzeari.  
Eta utziozu nire atzetik  
joateari. Eta utz nazazu  
bakean!